



JAINKOAREN IZENA ALFERRIK HARTZEA

ARIKETA-ORRIA

**BATXILERGOKO 1. MAILA
(MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA)**



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

HELBURUAK

- + Muturreko indarkeria erabiltzeak zer dakarren hausnartzea, terrorismo ororekin gertatzen den bezala, eta, bereziki, zurigarri erlijiosoa duen terrorismoaren jarduera honetan.
- + Indarkeria bidegabearen erabilera maltzurraz eta biktimengan eragiten duen min bidegabeaz eztabaidatzea.
- + Biktimen sufrimenduekiko enpatiazko jarrera sustatzea, kasu honetan terrorismo jihadistaren biktimak, bai Espainian izandakoak, bai nazioartean izandakoak.
- + Dokumentu historikoak eta biktimen testigantzak aztertuta, taldean eztabaida eta iritzi-trukea sortzea, bere burua immolatzeko eta hainbeste izaki errugaberi bizitza kentzeko gai izan zenari inokulatu behar izan zioten gorrotoaren ondorioei buruz.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu ahal izango baituzu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzak baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 45/50 minutuko modulu baterako pentsatuta dago.

BALIABIDEAK

Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta smartphoneak edo tabletak bezalako gailu mugikorrak erabiltzeko aukera.

EGILEA

Jesús Prieto



**Terrorismoa:
“Borrokalaria ez
diren pertsonen aurka
erabiltzen den indarkeria
klandestinoak, indarkeria
egiten dutenen helburu
politikoen aldeko beldur
giroa sortzeko, edo
gobernu baten edo
nazioarteko erakunde
baten erabaki bat
behartzeko”.**

Juan Avilés Farré

*Siriako Daesh-eko hilde batzuk indar-erakustaldia
egiten ari dira (2015/08/25). Ho, Zumapress.*



JAINKOAREN IZENA

ALFERRIK HARTZEA

Biktimen presentzia, kasu honetan euren narratiben bidez, indar pedagogiko oso garrantzitsua da. Kontuan izan behar da jasandako indarkeria euren kontakizunen bidez adierazten dela. Horregatik, ikuspegi historikotik gure mundu garaikidean gertatutakora hurbiltzen garenean, justifikazio erlijiosoko terrorismoaren fenomenoak, "jihadista" deritzona, aztertu nahi dugunean, ezin ditugu alde batera utzi hura jasan dutenak: biktimak. Horregatik, bidegabeko indarkeria jasan duten pertsonengana hurbiltzean, biktimagileen faltsukeriak eta haien gaiztakeria sakona biluzten ditugu. Eta bereizketa horren bidez, biktimagileek lege kanpoko indarkeria erabili dutela esan dezakegu, eta, halaber, biktimei agerikotasuna eman, euren duten zama moraletik, bidegabeko indarkeria baten hartzaile gisa. Hori guztia aipatu beharra dago, jarduera honetan aurkituko dituzuen terrorismoaren narratibak balioesteko.

Fenomeno oso konplexu batera hurbiltzen gara, eta sinplifikazioak beti dira okerrak. Hala ere, terrorismo jihadistaz ari garenean, hainbat erakunderen jardueraz ari garela esan dezakegu, eta horien artean ezagunenak Al Qaeda eta ISIS (edo Daesh) dira, zalantzarik gabe. Talde ezberdinek bat egiten dute "fedegabearen" aurka indarkeria erabiltzen dutelako, mendebaldeko "Zuzenbidezko Estatu demokratikoa"ren kontzeptua eta "giza eskubide indibidualak" esamoldea gaitzesten dutelako eta Xariaren, "lege islamikoa"ren, interpretazio muturreko eta minoritarioaren arabera zuzendu nahi dutelako beren burua. Ez da erraza estremismo biolentzia aztertzea, are gutxiago haren kaptadoreak, eskoletan, komunitateetan edo espetxeetan hark dituen sinboloak, hiztegia eta erreklutamendu-taktikak ezagutzeko aukera izan dezagun.

BIKTIMEK HITZ

EGITEN DUT

Human Rights Watchekin hitz egin zuten emakume eta gazteek bortxaketa, sexu-indarkeria eta beste hainbat abusu deskribatu zituzten ISISen esku gatibu egon ziren bitartean.

12 urteko Jalilak (bizirik atera zirenen izenak aldatu egin dituzte haien segurtasuna zaintzeko) kontatu zuenez, jatorriz bere herrixkakoak bezala ezagutu zituen hainbat gizon arabiarrek bera eta bere beste zazpi senide atzeman zituzten 2014ko abuztuaren 3an ISISetik ihes egiten saiatzen ari zirenean. Gizonak ISISeko borrokalariei eman zioten familia, eta hauek Jalila, bere arreba, bere koinata eta bere iloba txikia, gainontzeko senideengandik banandu eta Tal Afarrera eramane zituzten. Ondoren, borrokalariek Jalila eta bere ahizpa Mosulera eramane zituzten. 35 egun geroago, Jalila ahizparengandik banandu eta Siriako etxebizitza batera eramane zuten, non bahitutako beste neskatxa eta neska yazidi batzuk zeuden. Jalilak kontatu zuenez:

"Gizonak etortzen ziren eta gu aukeratzen gintuzten. Iristean, zutitzeko esan, eta gero gure gorputzak aztertzen zituzten. Illea erakusteko eskatzen ziguten, eta, batzuetan, ezezkoa ematen zuten neska gazteak jotzen zituzten. Dishdashak janzen zituzten (orkatiletaraino tunikak), eta bizar eta ile hazia zeramaten".

Kontatu zuenez, bera aukeratu zuen ISISeko borrokalaria zaplazteko bat eman zion, eta etxetik kanpora eramane zuen berak aurka egin zionean. "Ez ukitzeko esan nion eta joaten uzteko erregutu nion", kontatu zuen. "Nire amarekin eramateko eskatu nion. Neskato bat nintzen, eta galdetu nion: 'Zer nahi duzu nigandik?'. Sexu-harremanak izan zituen nirekin hiru egunez". Jalilak esan zuen gatiubaldian ISISeko beste zazpi borrokalarirena "izan" zela, eta horietako lauk hainbatetan bortxatu zutela: "Batzuetan, saldu egiten ninduten. Beste batzuetan, opari gisa ematen ninduten. Azken gizona izan zen neurrigabekoena, eskuak eta hankak lotzen zizkidan".

12 urteko beste neskato batek, Wafak, Human Rights Watchi esan zionez, abuztuan, ISISeko borrokalariek Kocho herrixkatik indarrez eraman zuten bere familiarekin batera. Gizonek Tal Afarreko eskola batera (gatibu zeuden beste yazidiz betea) eraman zuten familia, eta han familiarengandik banandu zuten borrokalariek. Leku horretatik, Irak barruko beste batzuetara eraman zuten, eta, ondoren, Raqqara, Sirian. Borrokalari zaharrago batek ez ziotela minik

egingo esan zion Wafari, baina, hala ere, behin baino gehiagotan bortxatu zuen. "Nire leku berean egiten zuen lo, eta beldurrik ez izateko esan zidan, bere alaba bezalakoa bainintzen", kontatu zuen. "Behin, esnatu eta hankak odoletan nituen". Wafak bahitua izan eta hiru hilabetera ihes egin ahal izan zuen, baina oraindik ez dakigu non dauden bere gurasoak, hiru anaiak eta arreba.¹

*Kazetari bat balaz betetako gune bat ikusten ari da Bardo Museoa, Tunisian, atentatu jihadistaren ostean.
Mohamed Messara, EFE.*



¹ <https://www.hrw.org/es/news/2015/04/15/irak-victimas-de-isis-describen-violaciones-sistematicas>

IRADOKITAKO JARDUERA

Aurreko testua eta Jalila eta Wafaren testigantza izugarriak irakurri ondoren, honako hau eskatuko dizugu, banaka.

1

Fanatismo horren jatorriari buruz hausnartu, eta saia zaitez haren ezaugarriren bat zerrendatzen.

2

Bi neska horien testigantza izugarria da. Generoaren ikuspegitik, zer iradoki dizu haien narrazioak? Zer sentitu duzu irakurtzean?

3

Testu labur bat egin dezakezu, Jalila eta Wafaren bizipen izugarria irakurtzean sentitu dituzun sentimenduak laburbil ditzaketen esaldi batzuk baino ez. Marrazki batekin lagun dezakezu. Ondoren, dinamizatzailerak jaso ditzake, Memorialak erabil ditzan.